


BPGrekiko I+Gko gastuan Gipuzkoa sendo Europako batez bestekoaren gaineratik

2010. urtean BPGrekiko gastua % 2,58koa izan zen Gipuzkoan, % 1,92koa Bizkaian eta % 1,58koa Araban

BPGrekiko I+Gko gastuan, Gipuzkoa (% 2,58rekin) izan da nagusi Europako batez bestekoaren aldean (% 2,00), eta Euskal AEko beste bi lurraldeekin zuen aldea areagotu du. Bizkaian (% 1,92) eta Araban (% 1,58) ere gora egin du gastuak aurreko urteko kopuruekin (% 1,85 eta % 1,54, hurrenez hurren) alderatuta; izan ere, hiru lurraldeak Espainiako batez bestekotik (% 1,39) gora egon dira.

1. grafikoa: I+Gko barne-gastua, BPGari dagokionez (%)



Iturria: EUSTAT - EUSKAL AEKO IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO (I+G) JARDUEREN ESTADISTIKA, EIN eta EUROSTAT


2010. urtean, Euskal AEn guztira 1.360 milioi euro inbertitu ziren (BPGren % 2,08) Ikerketa Zientifikoari eta Garapen Teknologikoari lotutako jardueretan (I+G); aurreko urtearen aldean % 6,2 igo zen I+Gn egindako **barne-gastua**. Hiru lurraldeetan gehitu da gastu hori. Bizkaian 609tik 643 milioira igo da gastua (+% 5,6%), Gipuzkoan 510etik 546ra (+% 7,1) eta Araban 162tik 171ra (+% 5,6).

Erkidegoan lurralde bakoitzak duen pisuari dagokionez, datuak hauek dira: Bizkaia % 47,3, Gipuzkoa % 40,1 eta Araba gainerako % 12,6. Hirurek izan dute aurreko urteko gastuaren oso antzeko banaketa.

Gastu mota aintzat hartuta, Euskal AEn gastu arruntak 1.076tik 1.164 milioira igo dira azken urtean (+% 8,2). Lurraldeka, Bizkaian 516tik 567 milioira igo da gastua (+% 9,9), Gipuzkoan 426tik 450era (+% 5,6) eta Araban, 134tik 148 milioi eurora (+% 10,4).

Kapital gastuak (lur, eraikin, ekipo eta tresnetan egindako inbertsioak) jaitsi egin dira aurreko urtean bezala, 205etik 196 milioi eurora (-% 4,4). Lurraldeka, Bizkaian 94tik 77 milioira jaitsi dira (-% 18,1) eta Araban 28tik 23 milioira (-% 17,9). Gipuzkoan, ordea, gastu hori 83tik 96 milioira igo da (+% 15,7).

2. grafikoa: I+Gn egindako barne-gastua, egikaritze-sektorearen arabera (%)



Iturria: Eustat. EUSKAL AEKO IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO (I+G) JARDUEREN ESTADISTIKA

Egikaritze-sektoreak bereizita, enpresen sektorean pilatu da gastu gehiena, aurrekoetan bezala; gero Unibertsitateak eta Administrazioak egin dute gastu handiena arlo horretan, baina ezaugarri ezberdinekin hiru lurraldeetako bakoitzean.

Gipuzkoan gertatu da gastuaren ehunekorik handiena enpresen sektorean, % 81,8 eta 447 milioi euro. Ondoren, Araban % 75,9ko gastua egin da, 130 milioi, eta Bizkaian % 73,4 eta 472 milioioika.

Araban Administrazio Publikoko sektoreak egin du gasturik handiena, gastu osoaren % 9,5; eta ehuneko hori txikiagoa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan, % 6,1 eta % 4,0, hurrenez hurren.

Bizkaia, bestalde, Unibertsitateko gastuan nagusi izan da, lurraldearen gastu osoaren % 20,5arekin; Araban gastu hori % 14,6 izan da eta Gipuzkoan % 14,2.

Baliabide pribatuaren bidez enpresen sektoreko I+Gn egindako barne-gastuaren % 67,5 finantzatu da

Enpresen sektoreak I+Gn egindako gastuaren % 67,5 ekimen pribatuaren bidezko **finantzaketa** izan du Euskal AEn; 2009. urtean (% 68,2) baino pixka bat txikiagoa izan da ehuneko hori. Lurraldeka, Araban % 72,4 izan da; Bizkaian % 66,9 eta Gipuzkoan % 66,6.

I+Gn dedikazio osoko baliokidetzan lan egin duen **pertsonala** hiru lurraldeetan gehitu da, 2009. urtearekin erkatuta. Araban 2.328 pertsonak lan egin dute esparru horretan, eta horien % 49,6 ikertzaileak izan dira; Bizkaian 8.210 pertsona aritu dira, horien % 66,7 ikertzaileak; eta azkenik Gipuzkoan 6.994 pertsona, % 63,5 ikertzaileak. Araban ikertzaile kopuru txikia

izan da, baina teknikari kopurua handia izan denez (% 36,7) egoera konpentsatuta dago; hain zuzen, teknikari kopurua beste bi lurraldeetan baino hamar puntu handiagoa da.

Emakumeek I+Gri lotutako jardueretan izan duten partaidetzak hurrengo banaketa izan du: Bizkaian langileen % 36,1, Araban % 33,2 eta Gipuzkoan % 30,4.

1. taula: I +Gko adierazleak lurralde-eremuaren arabera. 2010. urtea

	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskal AE	Espainia
I+G GASTUAK (%) /BPG	1,58	1,92	2,58	2,08	1,39
I+G GASTUAK (%) FINANTZAKETAREN ARABERA					
Enpresak	56,7	51,6	55,9	54,0	43,0
Administrazioa	40,5	41,8	37,4	39,9	46,6
Goi-mailako irakaskuntza	1,0	2,2	2,6	2,2	4,0
Bestalako iturriak	0,1	0,3	0,5	0,3	0,7
Atzerria	1,8	4,2	3,6	3,7	5,7
I+Gko PERTSONALA (DOB) *					
Pertsonala guztira	2.328	8.210	6.994	17.532	222.022
Ikertzaileak	1.154	5.474	4.443	11.071	134.653

*DOB: dedikazio osoko baliokidetzak

Iturria: Eustat. EUSKAL AEKO IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO (I+G) JARDUEREN ESTADISTIKA. EIN

Diziplina zientifikoa. Aurreko urteetan bezala, ingeniariak eta teknologia da gastu handiena egin duen diziplina zientifikoa (% 69,3); diziplina honek izan du, gainera, langile gehien (12.205). Era berean azpimarratzekoa da enpresek diziplina horren % 86,7 finantzatu dutela Euskal AEn. Lurraldeka, Gipuzkoa izan da nagusi, I+Gn egindako gastuaren % 73,2 bideratu delako ingeniariak eta teknologiara eta enpresek haien funtsen % 88,5 erabili dutelako. Bizkaian gastuaren % 67,9 da eta enpresen finantzaketa % 86,8 izan da; Arabak % 62,1eko gastua izan du eta enpresen finantzaketa % 80,7 izan da.

Arabian, enpresen sektoreak I+Gn egindako gastuaren % 47,5 enpresa txikietan egin da

Enpresen sektoreak I+Gn egindako gastuaren % 29,2 guztira 50 langile baino gutxiago zituzten enpresek egin zuten. Ehuneko hori Araban handiagoa da, % 47,5; Gipuzkoan eta Bizkaian % 23,8 eta % 29,1 izan dira ehunekoak, hurrenez hurren.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: José Miguel Escalada

Tel.: +34-945-01 75 96 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko \(I+G\) jardueren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko \(I+G\) jardueren estatistikari buruzko datu bankua](#)